

Ura Busturialdean

*Emaria itxi ez dadin,
hurbiletik kudeatzearen garrantzia*

Busturialdeko Ur Partzuergoa desegin eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hartu du bere gain Busturialdeko urak kudeatzearen ardura, urte hasieran. Erabaki horrekin, ura multinazionalen esku utzi eta pribatizatzeko dagoen arriskuaz ohartarazi dute hainbat talde politikok eta eragilek. Eskualdeak historikoki izan duen defizit hidrikoa konpontzeko, tokian tokiko kudeaketa defendatu dute, itsasontziz ura inportatzen aritu beharrean, udako sikatean gertatu bezala.

 ZIHARA JAINAGA LARRINAGA  FOKU

Urak tokian tokiko kudeaketa jasangarria izan behar du, Europar Batasuneko uraren esparru-zuzentarauak eta Nazio Batuen Erakundeak adierazten dutenez. Horren arabera, harrotik ahalik eta gertuen kudeatu beharreko baliabidea da, udal eskuduntzek kudeatu beharrekoa, alegia. Bizkaian, alta, aholkuei entzungor egin eta azken urteotan eskualdeek zituzten ur partzuergoak desegin dituzte pixkanaka. Hori horrela, egun, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak lurraldeko uraren %95etik gora kudeatzen du. Busturialdeko Ur Partzuergoa (BUP) izan da desegiten azkena.

Jon Bernat Zubiri Bermeoko GUZAN talde municipalistako kideak adierazi duenez, aspaldian hasi ziren eskualdeko agintari batzuk BUPen desinbertitzen: “2017. urtetik ez dira beharrezko inbertsioak egin, aurreko plangintzetan udalerrri guztiek adostuak zituzten konponbideak ez dira gauzatu”, dio. Desegitearen alde agertu ziren eskualdeko udalerrietako EAjko alkateek, baliabide ekonomiko eta teknikoetan gabeziak daudela argudiatu izan dute. Eskualdea osatzen duten hamasei herrietatik bederatzik babestu zuten erabakia.

Bilbao Bizkaia Partzuergora sartzearen aurka azaldu dira EH Bilduk eskualdean dituen alkateak. Ez dute gogoko egungo eredua, eta ura eskualdean kudeatzea defendatzen dute. Desegin aurretiko legegintzaldian (2011-2015) BUPen lehendakari izandako eta egun Ea udalerriko alkate den Iratxe Arriolak jeltzaleen argudioak gaitzetsi eta nabarmendu du Busturialdean ez dagoela baliabide ekonomiko faltarik: “Milioi bat eurotik gorako soberakina egon da, aurrekontuaren laurdena baino gehiago inbertsioetara bideratzeko moduan”. Urdaibaiko urak kudeatzen zituen partzuergoa desegitearen atzean, uraren kudeaketa multinazionalen esku utzi eta “negozioa” egiteko asmoa dagoela uste du.

Baliabide teknikoei dagokienean, partzuergo aldaketa gorabehera, inguruko ura kontsumitzen dute Busturialdean. Sei sistema desberdin dituzte. Gaur egunean, eskualdeko sistema osoa kontuan hartuta, udan defizit hidrikoa dagoela aitortu du Arriolak. Hain zuzen, adituen arabera ur falta egiturazko arazoa da Busturialdean eta baliabide propioekin sarritan

ezin da bermatu, udako hilabeteetan nagusiki: Urdaibaiko uraren hornidurarako planak jasotzen duenez 70 eta 100 l/s arteko defizit hidrikoa dago.

Defizit horren arrazoietako bat Gernika-Lumon dagoen La Vegako laugarren putzua industria garaian kontaminatu izana da Arriolaren esanetan. Bertan erabiltzen ez diren 60 l/s-ko daude, baina egun saneamendu sarera doaz zuzenean. Industriarako, kaleak garbitzeko, lorategiak ureztatzeko erabili daiteke, baina horren ordez edateko ura erabiltzen da. Bestalde, Busturialdeko enpresa handienak, Maierek, eskualdean erabiltzen diren ur edangarriaren 12.000 litro metro kubotik 1.000 erabiltzen ditu egunero. Horrez gain, azken bi hamarkadetan ur harguneetatik gertu landatutako eukalipptoen ondorioz ur gutxiago biltzen da. 56 hornidura gune daude eskualdean zehar, baina gainazaleko uren %20 galdutzat ematen da. Era berean, Arriolak azpimarratu du urteetan ez direla egoki mantendu eskualdeko hornidura sareak, jario handiak dituztela eta ura galdu egiten dela. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren



URA agentziak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BUPEko udalerrri denek 2020an aho batez onarturiko tokiko jardunaren BAT diagnostiko planean azaltzen da sistemek %40 galtzen dutela batez beste eta zifra altua izanik berriztatzea beharrezkoa dela. Arriolaren hitzetan, baina, ez da inbertitu nahi izan eta soluzioa kanpotik ekarri nahi izan dute.

ZADORRA SISTEMARA KONEKTATZEA

“BAT planean ageri diren neurrien artean lehena zen hoditeria horiek konpontzea”, dio Arriolak. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aldiz bestelako konponbideak aurreikusten ditu datozen urteetan. Horietako bat Mungia eta Bermeo artean hoditeria eraikitzea litzateke, eskualdea Zadorrako ur kudeaketa sistemara lotzeko. Egun, Mungiaraino iristen dira Zadorrako urak. Eako alkatetxek nabarmendu duenez BAT planean zortzigarren eta azken irtenbidea da Zadorrakoa. Halaber, Zadorra siste-

mak bere arazoak ditu eta tokiko baliabideak alboratu eta han zentratzeak Bizkaia osoa hornitzeko ondorioak dakartza bere esanetan. Janire Brijeska Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Lehendakariak eta Gerentziako Kabineteko arduradunak azaldu duenez errekurso propioak iristen ez direnean joko dute Zadorrako hargunera, Busturialdea Bilbao Bizkaia Partzuergoko parte den heinean “beste eskualdeekin egiten duten bezala”.

Zubirik dioenez, azken asteetan Gernikan Guggenheim berria eraikitzeko baldintza gisa planteatu da ura Zadorratik ekartzea, argudiatuz ezin dela turismoaren garapen sakonagoa egin eskualdean, ez bada edateko uraren ahalmena handitzen. Hain zuzen ere, turismoa bultzatzeko 100 l/s-ko gehiago behar direla diote egungo agintariek, oposizioaren 60-70 l/s-ko defizitaren aurrean.

Bai Zubirik eta bai Arriolak argi dute halako erabakiak herritarrei begira baino turismoan oinarritutako garapen

ekonomikoari erreparatuta hartu direla, baina ohartarazi dute Busturialdea ez dagoela masa turistiko handia jasotzeko prest: “Hainbat urtez abandonaturiko eskualdea izan da”. Hala, ura kanpotik ekarri arren gainerako defizit guztiek bertan jarraituko dutela uste dute.

ITSASONTZI BATEAN

Uda honetan Bizkaia osoan bezala, Busturialdean ere ohi baino euri gutxiago egin du eta hornidura segurtatzeko hartu diren neurrietan nagusienak zeresana eman du: ura itsasontziz eramango du Bilbao Bizkaia Partzuergoak. Urriaren erdira arte, *Dutch Spirit* itsasontzia eskualdea ur edangarriz hornitzen aritu da: Bilbao Bizkaia Partzuergoak Santurtziko portuan dagoen ur hargune batetik hartu eta Bermeoko portuan deskargatu du ura, egunean 2.000 metro kuboko ekarpena eginez. Brijeskak zehaztu du itsasontziaren bitartez 103.470 metro kubo sartu direla sistemara, “dena edateko”.

Busturialde osoko ur kontsumoa 12.000 metro kubokoa da eguneko eta egunean 2.000 ekarrita, ez da %8ra iristen. Bermeok soilik egunean 4.000 metro kubo erabiltzen ditu. Arriolak azpimarratu du barkuak aspaldian utzi ziola funtzionatzeari eta bere ustez efektu mediatikoa lortzea izan da helburu nagusia -1,8 milioi euroko kostua izan du-. Brijueskak zehaztu du itsasontzia beharrezkoa zela, baina ez dela mekanismo propioak ezeztatzeko neurririk hartu, "osagarriak dira ura bermatu eta fluxu ekologikoak ez kaltetzeko". Hala, azaldu duenez, beste neurri batzuk ere aztertu ziren itsasontziaren aurretik, ur gaziari gatzak kentzea adibidez, baina ingurumeneko ez zela komenigarria ondorioztatu zuten. Ura kamioietan eramatea ere planteatu zuten, eta horrez gainera, gauetan uraren presioa jaitea erabaki zuten, eta ura hainbat jardueratarako erabiltzea debekatu.

Alternatibei erreparatu, Gernika-Lumeko La Vegako putzua berrerabiltzeari aukeraz hitz egin du Arriolak. Horrez gain, defizit hidrikoa hornitzeko Oiz menditik Ajangizera doan hoditeria konpontzea ere beharrezkoa dela uste du; kondukzioa "Francoren garaikoa denez, galerak ditu -20 l/s-ko dakartza egun eta jatorrian 70 l/s-ko behar luke-. Adabakiak egin baino hoditeria guztia berritu beharko litzake bere aburuz: "Horrekin soilik konpon daiteke Busturialdeko defizit hidrikoaren arazoaren %80". Brijueskak, berriz, defendatu du hamar hilabetetan mantentze lanak egin dituztela eskualdean ura bermatzeko, hodiak konpondu, sistemara egokitu eta galerak aztertu dituztela. Hala, 78 l/s-ko berreskuratu dituztela lan horiekin.

MULTINAZIONAL EN ESKU

Kudeaketa ereduak aldatuz, Bilbao Bizkaia Partzuergoak etorkizuneko bere helburuak lortzeko uraren inguruko hainbat multinazional esanguratsu azpikontratatu ditu, eta langileen %60 multinazional horientzako ari dira. "Nahiz eta Bilbao Bizkaiko lantaldea publikoa izan eraikuntza lanak eta kudeaketaren enpresa handiek egiten dituzte. Ez dauka bere langilerik horretarako", salatu du Arriolak.

Diru aldetik ere ez dago garbi kudeaketa berria hobea denik. BUPEk 6-7 milioi eurotako aurrekontua zuen urtean. Bilbao Bizkaia aldiz 200dik gorakoa



Uraren bertoko kudeaketaren alde eta "EAJren utzikeria" salatuzko, EH Bilduk elkarretaratzea deitu zuen Bermeon iraila hasieran.

Ura kanpotik eramanda ere, Busturialdeak dituen gainerako defizit guztiek hor jarraituko dute

lurralde osorako. Biztanle bakoitzeko kopurua kalkulatu gero, Busturialdeak Bizkaiko batez bestekoa baino gehiago zuen lehen. Horrez gain, BUPEk langile publiko egonkorak izan ditu lantal-

dean, multinazionalen azpikontratatu gabe. Halaber, hoditeria Udal Sarea SAREN bidez gestionatzen du Bilbao Bizkaia eta ekonomia eskaletan azpiegitura handiak darabiltza, azken urteotan 150 milioi euro jaso ditu horietarako.

Pribatizazioaren atariko, publikoa kaskartzen dutela azpimarratu dute eredu horren kontrakoek: "Bilbao Bizkaia modu deszentralizatuan eta arroen arabera funtzionatuko balu agian oso eraginkorra litzateke, baina egungo eredu ez da jasagarria", dio Arriolak. Ikusteke dago etorkizuneko emango diren pausak pribatizazioaren bidean ote diren; momentuz, duela zenbait urte Madrilan aurrekari izan zen Canal Isabel II-an emandakoak jarraitu direla ohartarazi dute. Eta horren aurrean, ezinbestekotzat jo dituzte hurbileko kudeaketa eta herritarren parte hartzea, oinarriko baliabidea dugun bertako urik gabe ez gelditzeke. ●